

Bankari baten biolentzia



JUAN MARI ARREGI

Bankuetako presidenteek, hala nola patronal handietakoek, euren enplegatuen aldarrikapen-mugimendu orori indarkeria erabiltzea egotzi izan diote (grebak, pankartak, “obrero kaleratua, nagusi urkatua” eta antzeko simulazioak...), baita gizarteko beste sektore anitzi ere, askotan “estortsio terroristaren” pare jarriaz, ETArek *zer-ga iraultzailearen* antzera. Bada, gaur bankarien biolentziak hitz egingo dugu, zehazki BBVAko presidentek erabilitakoaz. Francisco Gonzalezek (FG) ez zuen eskrupulurik izan Estatuaren estolda-zuloetako agenteak erabiltzeko –Villarejo komisarioa zen haietako bat– eta akziodunei lapurtutako milioika euro bideratzeko, ustez bankuaren kontrola bereganatu nahian zebiltzanen kontra egiteko.

Eskura ditugun datuek diotenez, Sacyr taldea saiatu zenean FG presidentetzatik kentzen 2004-2005 artean, honek erabaki zuen enpresariak, ministroak eta kazetariak espiatzeko sarea sortzea. Villarejo komisarioari eman zio lan hori, eta zenbait pertsonari xantaia egiteaz gain, gezurrak eta kalumniak jaurti zituen –hau da, biolentzia–. Dirua erruz erabili zuen: komunikazio sistemen ITC edo *maletak* 500.000 euro balio zuen. Hainbat kalkuluren arabera bost milioi euro ordaindu zizkion Villarejori gerra zikina egiteko.

FG iritsi zen BBVAren presidente izatera garbitasun eta gardentasuna aldarri hartuta: Neguriko buruzagiak bankutik kanporatu zituen paradisu fiskalekin zuten erlazioagatik. Orain, haren kontrako salaketak baieztatzen badira, bera izango da estortsioa erabili eta lapurtutako diruz gerra zikina sustatu duena. Bankariaren biolentzia. Aste honetan Bilbon egingo den BBVAko akziodunen batzar nagusiak zerbaitegin beharko luke. ●



Marrazki bizidun matxisten dekonstrukzioa

JON TORNER ZABALA

Adolescents.cat webgunean topatu dugu “Sekula ikusi dituzun bost marrazki bizidun matxistenak” zerrenda. Eta, hara non, lehenbiziko biak euskaraz ere eman/ematen ditu ETBk. Besteak ere, aski ezagunak dira gurean: *Shin Chan*, *Doraemon*, *The Simpsons*, *SpongeBob* eta *Phineas & Ferb*.

Amaren figura maiz aipatzen da artikuluan. Ez da gutxiagorako. Zenbat eta zenbat marrazki bizidun edota telesailetan, ama da andere (etxekoandre) ipurterre zorrotz bat, eta aita eguna lanean (-edo) pasa ostean etxean kolpe zorrik jotzen ez duen tipo (pailazo) *enrollatu* hori?

Aipatu behar dira, era berean, Doraemon saileko Shizuka moduko emakumezko pertsonaia hiper-sexualizatuak. Marrazki bizidunok ezagutzen badituzue, ziur badakizuela zeri buruz ari garen. Zentzu horretan, merezi du Pakito Ganbelaik Zuzeu agerkarian plazaratutako artikulua irakurtzeak: *Doraemon*, *sexua*, *drogak* eta *matxismoa*. Kontatzen du, besteren artean, Shizuka, hamar urteko neskatoa, hamaika ataletan biluzik agertzen dela; eta telesailak aurrera egin ahala, bere gorputza ez dela 10 urteko gazte batena (mutikoena ez da aldatzen).

IKUSPEGI EZ NATURALAK

Gisa honetako artikulua irakurtzean, beti oroitzen naiz garai batean Iban Zaldia idazleak elkarrizketa batean esandakoez, komikietan emakumeek duten presentziaren eta rola inguruan. Seme-alabekin dekonstrukzio lana egiteak duen balioaz mintzo zen: “Ez da ezer bereziki konplikatu: kontua da ohartaraztea emakumeen urritasuna, alde batetik, ez dela naturala, eta, bestetik, emakumeen rola, komiki askotan, estereotipatuta dagoela (...) Azkenean iristen da une bat non umeek berek barneratzen duten ikuspegi hori, gauzak ez direla ‘naturalak’ horrela, beste era batean izan zitezkeela alegia. Zorionez, emakumeen rol ezberdinak areago azpimarratzen dituzten gero eta komiki gehiago dago eskura –gehienak, esan behar da, emakumeek idatzi edo marraztuak–, oraindik, maila absolutuan, gutxi izaten jarraitzen duten arren”. ●